

Sozialismoa:

irtenbide

gabe?

Esan berria digu norbaitek, euskaldunon etsaia ez dela iadanik faxismoa, eta bai PSOE.

Baina PSOE ote da euskal sozialismoaren etsai okerrera? Nola arraio izan liteke PSOE gure etsaierik? Nola izan liteke arriskurik guretzat? Agian, oraindik oraingoz, etsaien indarrak ez, baino bere buruaren ahuleriak dirudi euskal sozialismoaren etsai okerrera.

Euskal sozialismoa bidegurutzetara dago. Euskal sozialismoak esku-eskumenean du benetan masa indar bortitza eta trinkoa bihurtzeko posibilitatea. Baina pausotara dauka mila sekta hutsetan gelditzeko arriskua ere.

Erabaki beharra

Ez dago indezizioan segitzerik, euskal sozialismoa zer izango den. Erabaki bat hartu beharra dago.

Jendearekin hitz eginaz, laster ohartzeko zara, luzesten eta deskonzentratzen hasia dela.

Jende asko ta askoren preokupazio larriena beharbada horixe da momentu honetan. Estatu espainol guzian Alderdiak burua altxatzen ari dira. Han eta hemen agiri dira. Ikusten dira. Bakarrik Euskal Herrian berriz ere taldeak eta taldetxoak agertzen dira, Alderdi orde. Eta batek ez daki nora jo. Nahastu egiten da bat hainbeste sigla artean. ESB-rekin EHAS-ekin? Poli-miliek ateratzen omen duten horrekin?

Taldeka dabilzan artean, talde horiek ezin izan litezke masa biltzaileak, masa sozialisten elkar eta erakarleak.

Desorientazioa

Egungo giroak bildur ematen du Euskal Herrian. Ez da falta goa, nahia. Falta dena ez da hori. Falta dena orientazioa da. Bide bat. Organizazio bat, non sartu, zinekin identifikatu. Referentzia puntu garbi bat.

Izan ere, ikusteko bildurgarria bait da, sentimentu kolektiboak espontaneoki lehertzen direnean, ia beti era negatiboan egiten dutela, intolerantzia eta sarri vandalismoa hutsez. "Sukursalisten" kontra. PC, MC edo ORT-ren letrak dituzten ikurrinen kontra, eta abar. Orduan denak bat datoz. Ordan denek dakite, nonbait, non dauden eta zer egin behar duten.

Gero, ordea, horietxek berak uzkur eta kili-kolo aurkitzen dituzu, ez atzera ta ez aurrera: ESB-ri zer deritzazu? Eta EHAS-i? Poli-miliek Alderdiaren bat ateratzen omen dute, ezta? Orduan inork ezer ez bide daki. Dena ilun dago. Eta zu, non zaude?, galdetzen dituzu. Baina jendea, piska bat edozein nekin dago eta piska bat inorekin ez dago.

Han eta hemen sigla diferenteak agertzea, eta siglaok elkarren kritikatan ibiltzea, horixe da mugimendu sozialistaren freinurik haundiena oraingo Euskal Herrian. Izen bat behar da, bakarria, KAS izan ala Coca-Cola izan. Eta jendea harekin oso-osorik identifikatuko da.

Jendeak ia ez bait daki non egon, bestela. Hainbestekoak ote dira talde horien arteko diferentziak?, dudatzen du bere artean. Eta jendeak ez du inoren alde partido hartu nahi, ez duelako partido hartu nahi inoren kontra. Gaurko giro honetan, inoren alde erabakitzeak, bestearen kontra erabakitzeak, esan nahi bait du.

Referentzia bat

Referentzia puntu garbirik ez dago. Eta horrek airean bezala uzten du jendea.

Gero, Bergarako bezalako gauzak gertatzen dira. Jendea hunkiturik dabil. Benetan entusiasmaturik. Zeharo identifikatzen da Bergarakoarekin. Baina hutsune batekin gelditzen da. Zeinena zen Bergarakoa? "Gure" jendeak parterik ba ote zuen?, galdetzen du bere golkoan. Ez bait luke identifikatu nahi "Alderdi burgesekin"...

Masa mugimendurik ez da posible, aukera *en masa* egitea posible ez bada. Sigla batzuen eta besteen artean xehe-xehe berezten ibili behar baldin bada, konzientzia torturatuaz. Aukera gehiegi, aukera zaillegi: besterik ez da azkenean, jendearentzat.

Taldeok taldeka segitu nahi badute, hor konpon. Ez dugu ezer irabaziko. Baina masa mugimendurik nahi badute, izen *Batekin* hitz egin behar diote herriari. Izan bakar batekin beti. Eta fuera kaleetik beste sigla denak.

JOXE AZURMENDI